

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL**HONDARRIBIKO UDALA**

Hondarribian etxebizitza hutsen alokairua merkatuan jartzeko diru-laguntzak emateko oinarrien behin betiko onarpena.

Udalbatzak 2015eko otsailaren 5eko ohiko bilkuran, Hondarribian etxebizitza hutsen alokairua merkatuan jartzeko diru-laguntzak emateko oinarriari hasierako onarpena eman zien.

Espedientea jendaurrean egon da 30 lanegunez eta iragarria 2015eko otsailaren 26ko 38. zkiko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udal oholtean argitaratu da.

Jendaurreko epea bukatu eta alegaziorik aurkeztu ez denez, hasierako onespena jaso zuen akordioa behin betikotzat jotzen da.

Ondorioz, oinarriak honela idatzita geratuko dira:

«Hondarribiko Udala ahalegin handia egiten ari da bertako biztanleei etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzen duen eskaintza egiteko.

Hartarako, azken agintaldietan babestutako etxebizitzari buruzko bi ekimen jarri ditu abian, biak ere Muliatego eremuan, bertan azalera eskubidea, jabetza, eta alokairu sistemak erabiliz. Azken zentzu horretan, aipagarria da Visesarekin a.300.2 lurzatia dela-eta egindako hitzarmena, 65 etxebizitzatik 33 babestutako alokairurako izango baitira; proiektu horrek osatu egiten du, gainera, eremu bereko a.300.1 lurzatian egindako beste proiektua, bertan Eusko Jaurlaritzak gizarte alokairuko 25 etxebizitza jarri baitzituen abian. Hori guztia Eusko Jaurlaritzaren eta Hondarribiko Udalaren arteko lankidetzat prozesua da, oso sendotua den prozesua.

Dena dela, eraiki berriak diren babestutako etxebizitzaren esku-hartzeak (erabilitako formula ezberdinetan) ez dituzte eskal Administrazioak erabiltzen ari diren aukerak ahitzen, etxebizitza librearen merkatura iritsi ezin diren hiritarren esku bizitokiak jartzeari dagokionez.

Aukera horietako bat Bizigune programa da, hain zuzen ere Euskadin hutsik dauden etxebizitzak martxan jarri eta merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko baliabide ekonomiko aski ez dituzten pertsonen eskura jartzeko programa.

Dena dela, programa horrek ez du erantzunik jaso Hondarribian, bertako etxebizitza merkatuaren baldintza bereziak direla-eta.

Hori dela-eta, Hondarribiko Udalak erabaki du Bizigune programan aurreikusitako ekarpen ekonomikoak osatzea, hain zuzen ere merkatu libreko alokairuaz baliatu ezin diren bertako biztanleen artean babestutako etxebizitza hutsen alokairua eskura jar dadila sustatzeko.

Oinarri hauek diru-laguntza horiek eskuratzeko baldintzak, diru-laguntzen tipologia eta prozedurak zehazten dituzte.

AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

Aprobación definitiva de las bases para la concesión de subvenciones de apoyo a la puesta en marcha en el mercado de alquiler de viviendas vacías en el municipio de Hondarribia.

El Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria celebrada el día 5 de febrero de 2015 aprobó inicialmente las bases para la concesión de subvenciones de apoyo a la puesta en marcha en el mercado de alquiler de viviendas vacías en el municipio de Hondarribia.

El expediente ha sido sometido a información pública por plazo de 30 días hábiles mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 38 de 26 de febrero de 2015 y en el Tablón de Anuncios Municipal.

Transcurrido el plazo de exposición pública sin que se hayan presentado alegaciones, ha quedado elevado a definitivo el acuerdo inicialmente adoptado.

En consecuencia, las bases quedan redactadas de la siguiente manera:

«El Ayuntamiento de Hondarribia viene desarrollando un importante esfuerzo para la puesta a disposición de sus habitantes de una oferta de viviendas que les garantice su acceso a una vivienda digna.

A tal efecto, en las últimas legislaturas ha puesto en marcha dos operaciones de vivienda protegida, ambas en el ámbito urbanístico de Muliatego, combinando las fórmulas del derecho de superficie, la propiedad y el alquiler. Es de destacar en este último sentido la operación convenida con Visesa en la parcela a.300.2, en la que, de 65 viviendas, 33 se van a destinar al alquiler protegido; operación que complementa la realizada en la parcela a.300.1 del mismo ámbito, donde el Gobierno vasco puso en marcha 25 viviendas en alquiler social. Todo ello en un proceso de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Hondarribia que se halla sólidamente asentado.

Sin embargo, las actuaciones de promoción de vivienda protegida de nueva construcción en sus diferentes fórmulas no agotan las posibilidades que las Administraciones vascas están poniendo en juego para tratar de poner alojamientos a disposición de la ciudadanía que no puede acceder al mercado de vivienda libre.

Entre ellos destaca el programa Bizigune, que pretende movilizar las viviendas que están vacías en Euskadi y facilitar su uso a personas cuyos recursos económicos no son suficientes para acceder a una vivienda de alquiler en el mercado libre.

Este programa, sin embargo, no ha obtenido respuesta en el municipio de Hondarribia, dadas las peculiares condiciones del mercado de la vivienda que le caracterizan.

Es por ello que el Ayuntamiento de Hondarribia ha decidido complementar las aportaciones económicas previstas en el programa Bizigune con objeto de incentivar la puesta a disposición de sus habitantes que no pueden acceder al mercado de alquiler libre viviendas actualmente vacías en alquiler protegido.

Las presentes bases determinan las condiciones requeridas para poder acceder a las ayudas, su tipología y procedimiento.

Laguntza motak.

Ordenantza honek bi laguntza mota aurreikusten ditu, eta biak batera ere jaso daitezke.

– Bata hiruhilerokoa, eskaeragilearen eta Alokabide sozietate publikoaren arteko kontratua indarrean dagoen hilabete bakoitzean ordaindu beharrekoa.

– Bestea ordainketa bakarrekoa, hain zuzen ere Alokabidek etxebizitzaren titularrari etxebizitza egokitzeko eskatutako lanei dagokiena, Bizigune programan aurreikusitako kontratua sinatzeko ezinbestekoak baitziren.

Laguntzen zenbatekoa.

– Hileroko laguntzak gehienez ere 200 eurokoak izango dira hileko.

– Etxebizitza egokitzeko ordainketa bakarreko laguntzak gastuaren %50ekoak izango dira, gehienez ere 2.000 euroko mugarekin.

Onuradunak.

Laguntza hauen onura jaso ahal izango dute Bizigune programan sartuak diren etxebizitza hutsen titularrek, baldin eta programa horretan aurreikusitako usufruktu kontratua sinatua badute Alokabide sozietate publikoarekin.

Baldintzak.

Programa honetan aurreikusitako diru-laguntzak jaso ahal izateko baldintza hauek bete behar dira.

– Hileroko laguntzen kasuan, Bizigune programaren esku jartzea Hondarribiko udalerrian dagoen etxebizitza hutsa, eta dagokion usufruktu kontratua sinatzea eskaeragilearen (etxebizitzaren titularraren) eta Alokabide sozietate publikoaren artean.

– Etxebizitza egokitzeko laguntzei dagokienez, aurreko ataLEAN adierazitako baldintza ez ezik egokitze lanak egitea, Alokabidek egindako errekerimendua betez.

Araubide ekonomikoa/finantzaketa.

Diru-laguntza hauek urtekoak dira, eta aurreikusita dago aurrekontu-ekitaldi bakoitzean deialdi publiko bat egitea; bertan zehaztuko dira bai eman beharreko laguntzen zenbatekoak, eta bai programari atxikitako aurrekontu kredituaren zenbatekoak.

Diru-laguntza gehienez ere izango da aurrekontu aurreikuspenaren arabera.

Eskabideak egin eta diru-laguntzak emateko prozedura.

Oinarri hauetan araututako laguntzak eskatzeko, diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzako 4. artikuluan ezarritako baldintza orokorrak ez ezik, bereziki ondokoak aurkeztu beharko dira:

Alokabide sozietate publikoarekin sinatutako usufruktu kontratuaren kopia.

– Hileroko laguntzetarako, horrez gain Alokabidek egindako diru-sarrerak zuzitzeko agiriak aurkeztu beharko dira.

– Ordainketa bakarreko laguntzetarako, beharrezko egokitze lanak egiteko Alokabidek egindako errekerimendua, eta horrez gain horien fakturak.

Hileroko laguntzen kasuan, administratiboki aitortutako diru-laguntza jasoko da behin Alokabidek egindako diru-sarreraren ziurtagiria aurkeztuta.

Ordainketa bakarreko laguntzen kasuan, diru-laguntza jasoko da behin egokitze lanak amaituta eta Alokabideren adostasuna lortuta.

Tipos de ayudas.

Esta Ordenanza prevé la existencia de dos tipos de ayuda, siendo compatible la percepción de ambas:

– Una, de periodicidad trimestral, por cada mes que se halle vigente el contrato entre el solicitante y la sociedad pública Alokabide.

– Una, de un solo pago, correspondiente a las actuaciones de adecuación de la vivienda exigidas por Alokabide al titular de ésta para la firma del contrato previsto en el programa Bizigune.

Cuantía de las ayudas.

– Las ayudas de periodicidad mensual tendrán una cuantía máxima de 200 euros por mes.

– Las ayudas de un solo pago para actuaciones de adecuación de vivienda serán del 50% del gasto realizado con un límite máximo de 2.000 euros.

Beneficiarios.

Podrán ser beneficiarios de estas ayudas todos los titulares de viviendas vacías en el municipio de Hondarribia que se hayan incorporado al programa Bizigune, habiendo ya firmado el contrato de usufructo con la sociedad pública Alokabide previsto en dicho programa.

Requisitos.

Para acceder a las subvenciones previstas en este programa se requieren los siguientes requisitos:

– En el caso de las ayudas de periodicidad mensual, la puesta a disposición del programa Bizigune de una vivienda vacía ubicada en el término municipal de Hondarribia y la consiguiente firma de un contrato de usufructo entre el solicitante de la ayuda, titular de la misma, y la sociedad pública Alokabide.

– En el caso de las ayudas a la adecuación de la vivienda, además de los requisitos reseñados en el apartado anterior, la realización de las actuaciones de adecuación en cumplimiento del requerimiento realizado por Alokabide.

Régimen económico / financiación.

Estas subvenciones tienen un carácter anual, previéndose la realización de una convocatoria pública en cada ejercicio presupuestario, en la que se determinarán las cuantías, tanto de las ayudas a otorgar como del crédito presupuestario asignado al programa.

El otorgamiento de subvenciones tendrá como límite el de su previsión presupuestaria.

Procedimiento de solicitud y concesión de las ayudas.

Además de los requisitos generales para la solicitud de subvenciones establecidas en el artículo 4 de la Ordenanza Municipal General Reguladora de Subvenciones, específicamente para la solicitud de las ayudas reguladas en las presentes Bases, deberá aportarse la siguiente:

Copia del contrato de usufructo firmado con la sociedad pública Alokabide.

– Para las ayudas mensuales, deberán aportarse además los justificantes de ingreso realizados por Alokabide.

– Para las ayudas de un solo pago, el requerimiento realizado por Alokabide para la realización de las adecuaciones necesarias, además de las facturas de las mismas.

La percepción de la subvención reconocida administrativamente se producirá, en el caso de las ayudas mensuales, una vez aportado el justificante de ingreso realizado por Alokabide.

En el caso de las ayudas de un solo pago, una vez finalizadas las actuaciones de adecuación y obtenida la conformidad por parte de Alokabide.

Diru-laguntzei ematen zaien xedearen kontrola.

Hondarribiko Udalak eskubidea izango du beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko datuen fidagarritasuna eta laguntzak behar bezala erabili direla egiaztatzeko.

Diru-laguntzaren xede den esku-hartzea aztertu ondoren, gerta liteke diru-laguntza aldatu edo ezestea usufruktu kontratua amaitu dela egiaztatzen bada, baliogabetzea baldintzak bete ez badira, edo amaitzea, denbora aurrera egin eta kontratua berritu ez bada.

Indarrean jartzea.

Oinarri hauek indarrean jarriko dira Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera».

Hondarribia, 2015eko abuztuaren 27a.—Txomin Sagarzazu Ancisar, alkatea. (7759)

Control de destino de las subvenciones.

El Ayuntamiento de Hondarribia se reserva el derecho a hacer cuantas comprobaciones considere oportunas para verificar la fiabilidad de los datos y la correcta utilización de las ayudas.

El análisis de la actuación objeto de subvención podrá lugar a la modificación de la subvención o incluso su revocación en el caso de que se verifique la finalización del contrato de usufructo, su anulación por incumplimiento de las condiciones o su finalización por el transcurso del tiempo sin que se haya producido renovación.

Entrada en vigor.

Estas Bases entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa».

Hondarribia, a 27 de agosto de 2015.—El alcalde, Txomin Sagarzazu Ancisar. (7759)